



IKAZTEGIETAKO UDALA ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.-REN

2026 URTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Tolosan, bi mila eta hogeita seiko urtarrilaren 9an

BILDURIK

Batetik, Alba Garmendia Castaños, NAN: 72525097W, Ikaztegieta Udaleko (aurrerantzean Udala) alkatea, haren izenean eta ordezkari gisa, horretarako behar bezala ahalmenak dagoelarik.

Eta bestetik, EIDER AIERBE ISASTI, NAN: 44.334.594-R, Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M.ren (aurrerantzean TKT) kudeatzailea, haren izenean eta ordezkari gisa.

Bi alderdiok lankidetzaren hitzarmen hau egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AITORTZEN DUTE:

I.- Herritarren **hizkuntza-eskubideak bermatzeko** ahaleaginean Ikaztegieta Udalak eta TKT-k bat egiten dutela **euskararen erabilera eta normalizazioan eragiteko premi eta helburuekin, eta, asmo honen zerbitzura**, herritarrek euskaraz informatzeko eskualde mailako komunikabide sarearen sustatzea dela hitzarmen honen xede eta funtsa.

II.- TKT dela ATARIA prentsa, Ataria Irratia eta Ataria.eus euskarriak osatzen duten proiektu komunikatibo multimediararen jabe eta ekoizpen arduraduna.

III.- TKT-k kudeatzen duen komunikabide sarearen eremua Tolosaldeko eskualdea osatzen duten herrietara hedatzen dela, bere onuradun direlarik bertako herri eta herritar guztiak, tartean, Ikaztegieta.

IV.- TKT-k eratutako euskarazko proiektu komunikatibo honen helburu nagusia, eskualdean sortzen den informazioa herritarrei bitarteko anitzetan euskaraz komunikatzea dela, eta honela, **euskararen erabilpena sustatzeko eta normalizazioa eragiteko Udalak duen plangintzari ekarpen esanguratsua egiten zaiola.**

V.- Beharrezkoa dela TKT-k aipatu helburuekin eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko Udala eta TKT-ren arteko lankidetzaren jardunaren sakontzea, aintzat harturik **Eusko Lege Biltzarren "2/2016 legea, apirilaren 7koa. Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa"** -k Udalari ematen dizkion eskumenak eta TKT-k 2025-2028rako aurkeztutako proiektu komunikatiboa eta bideragarritasun plangintza.

VI.- Hitzarmen honek bat egiten duela Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak "Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko" diru laguntzak emateko modua arautuz 2016ko uztailaren 20an emandako aginduaren helburuekin (EHAA, 2016ko uztailaren 22a, 140 zenbakia) eta, baita, Gipuzkoako Foru



Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak "Euskararen erabilera sozialaren inguruan diru laguntzak emateko oinarri arautzaileetan" (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko martxoaren 7a, 46 zenbakia) finkatutakoarekin ere, eta osagarri dela.

VI.- TKT-k, **gizartea zerbitzatzea duela helburu, ez duela irabazi helbururik eta, sortuko balitz, kudeatzen duen proiektu komunikatiboa hobetzera bideratuko dela osoki.**

Hau guztia honela izanik, LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatu dugu, ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen helburua da TKT-k eta Udal honek, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabilerearen normalizazio-lanak bideratzea.

BIGARRENA. LANKIDETZA HITZARMEN honetan, TKT-k jarraian aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Internet: Ataria.eus webgunea eguneratu, elikatu eta sare sozialen bitarteko hedapena egingo da urte osoan, etenik gabe.
- b) ATARIA prentsa: argitaratuko dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta 36 orriko astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik.
- c) Ataria Irratia: irratia egiteko moduari buelta bat eman genion iazko irailean eta horrela jarraituko dugu: gaur egungo kontsumo ohituretara gerturatuz, zuzenekoari garrantzia eman beharrean edukiari emanaz, Podcast ezberdinak eginez eta hauek zabaltzeko bide ezberdinak baliatuz.
- d) Euskarazko hedabideekin elkarlan bideak jorratuko dira sinergiak baliatu eta interes komuneko eta kalitatezko edukiak ekoizteko, edozein euskarritan.

HIRUGARRENA. TKT-k, bigarren artikuluan aipatu ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Herritarren intereseko produktuak (edukiak, formatu, maiztasun...) lantzeko ahalegina egingo da. Hedabideen bilakaera azkarra kontuan, gertatzen diren aurrerabideak eten gabe aztertu dira beharrezkoak izan daitezkeen hobekuntzak egiten saiatzeko.
- b) **Ataria hedabideak, beren beregi zainduko ditu hedatutako informazioen pluraltasuna eta objektibotasuna, iritzi zein pentsamolde guztiei lekua eginez, herritar guztien erreferentziazko komunikazio gunea izateko helburuarekin.**
- c) Ataria marka gizarteratu eta harpide sarea zabaltzeko eta irismena areagotzeko ahalegin etengabea egingo da; **urtez urteko egitasmoan finkatutako dira helburuak eta neurketa adierazleak.**
- d) Herri guztietan dugun banaketa sistema hobetzeko neurri bideragarriak hartuko dira.



LAUGARRENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen bidez, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen lerro hauek garatuko ditu:

- a) Diru ekarpen zuzena. **Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau urte batekoa (2026) izango da. Urtean urteko errola eguneratuaren arabera, **biztanleko 5 €** emango dizkio 2026 urtean Udalak TKT-ri. Erabaki hau urtez-urte berretsi beharko du Udalak diru-kopuru zehatza adierazten duen berariazko ebazpena bidez, hartzaileak aurkeztutako aurreko urteko zuriketa dokumentuak (hitzarmen honetako 6. puntua) eta dagokion urteko egitasmoa aztertu eta gero.**
- b) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publikitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizialak eta eskelak ATARIAn jartzeko konpromisoa hartzen du Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publikitatea, urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi aldeek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatuko litzateke.
- c) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta TKT-ren artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu Udalak.
- d) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzaren erakartzeko Udal zerbitzuen kooperazioa izango du TKT-k.
- e) Informazioaren kudeaketa: Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jarria sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKT-k.
- f) Udalak bere webgunean Ataria.eus webgunerako botoia jarriko du, Atariaren webguneko bere herrira bideratuz.

BOSGARRENA.- Udalaren eta TKT-ren ordezkari osatutako lan-taldeak urtero bilera egingo du. Batetik, hitzartutakoaren jarraipena egiteko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objetibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeke. Eta, bestetik, dokumentu honetako hirugarren artikuluan hartutako konpromisoen betetze maila aztertzeke.

SEIGARRENA.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.a. puntua) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpen osoa dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k. Hurrengo urte hasieran, martxoak 31 baino lehen, jardunaren txostena eta Udalaren diru-ekarpen osoa zuritzeko fakturak edota beraien fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Edozein gisatara ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremana eguneratua egon beharko du.



ataria

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte bildutakoek, hasieran aipatutako toki eta egunean.

Ikaztegieta Alkatea

Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.

72525097W Digitalki sinatuta
ALBA norengandik:
GARMENDIA 72525097W ALBA
(R: GARMENDIA (R:
P2009000G)
P2009000G) Data: 2026.01.20
10:27:12 +01'00'

Udal Idazkaria

JOSE Digitalki
MARIA sinatuta
SAIZ norengandik:
PAGOAGA JOSE MARIA
- 44158869L SAIZ PAGOAGA
- - 44158869L
Data:
2026.01.21
44158869L 09:10:33 +01'00'

